



KUTXA Enplegatuen Elkartea	Xendazaletasun atala
131. zka. Ignaziotar Bidea 8. etapa	Fuenmayor-Logroño/2019-06-22

Xendazale adiskideok:

2019ko bosgarren etapa Fuenmayor eta Logroño artekoa izango da. Upategien artean utziko dugu Fuenmayor herria, eta 4 km baino gehixeago ibilita beste toki garrantzitsu batera iritsiko gara, Navarrete. Multzo historiko-artistikoa eta erromes ororentzako nahitaezko geralekua. Errioxako autonomia-erkidegoan gaur egun geratzen den eltzegintza-gune bakarra da eta Espainia iparraldeko garrantzitsuenetako bat izana da.





Navarrete hiribildua, ikuspuntu juridikotik, 1195. urtean sortu zen, Gaztelako Alfontso VIII.ak eman zion foruaren bidez. Jasokundearen eliza du, eta Gertaera Onaren eta Jesusen basilizak, Kondearen Jauregia, Caño aldapa, Harresia, Gaztelua, eta erromesa, eltzegilea eta Navarreteko emakumea oroitarazteko eskulturak. Eta 11 upategi ere bai, ez da hutsaren hurrengoa!

Hori guztiori atzera utzi eta Errioxako hiribururantz joko dugu, La Grajerako urtegiaren ondotik. Logroño toponimoaren jatorria, beste herri askotakoa bezalaxe, ezezaguna da. "Lucronio" izena lehen aldiz 965. urteko dokumentu batean agertzen da, horrela deituriko lekua Iruñeko Gartztea I.a Sanoitz-ek Donemiliagako Monasterioari eman ziolarik. Hiri titulua Joan II.a Gaztelako erregeak eman zion 1431ko otsailaren 7an.

Ondare historiko garrantzitsua du. Elizak: San Bartolome, Santiago el Real, Sta María de Palacio eliza inperiala, Sta M^a la Redonda konkatedrala; monumentuak: Revellingo Harresia, Harrizko Zubia, Burdinazko Zubia, Sagasta Zubia, San Blas Azoka, Kapitelen Jauregia, Esparteroren Jauregia, Monesterioko Markesa, Ama Birjinaren Etxea eta abar. Gutxienez asteburu bat pasa liteke bertan!

Animo mendizaleok, natura zain dugu eta !!!

Ibilbidea: Fuenmayor-Logroño

Beharrezko denbora	4,30 ordu						
Goranzko desnibel metatua	128 metro						
Beheranzko desnibel metatua	195 metro						
Zeharretara egin beharreko distantzia	17.750 metro						
 Ertain a	1	 Orientazioa	2	 Joan-etorria	1	 Esfortzu a	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 bus-geral.) eta Pio XII.aren plaza (24/27 bus-ger.)
Aurkezteko ordua	07:10 (Bilbo plaza) eta 07:15 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua	07:15 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	XXXXXXXX jatetxea.
Prezioa	32 euro

Izena emateko azken eguna: 2019-06-20ko 12:00etan

Oharra: a/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

b/ Eguraldiaren iragarpenaren arabera, ibilaldia aldatzeko aukera izango dute antolatzaileek.

Izen-emateak egiteko: José Ignacio Acuña (joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

